



Datu ekonomikoak



Ekoizpenaren bilakaera

Cavaren ekoizpenak gorako eboluzio arina izan du 2000-2008 epean; bai deitura honen azpian babestutako mahastizain kopuruan, egun 7.500 inguru direnak; bai guztira inskribatutako azaleran, 33.706 Ha hartzen dituenak.

2008an Cavako upategi elaboratzaileen kopurua 272 da, eta horietako 164 oinarri-ardoa egiteko enpresak dira.

Euskadin edari apardun hau egiten duten 2 enpresa daude: Oion kokatutako Bodegas Faustino; eta Guardian dagoen Artadi-Cosecheros alaveses.

Cavako upategi elaboratzaileen eta ardo-ustiategien kopuruaren bilakaera 2000-2008 epean


Uztaren urtea	Upategien kopurua	Mahastizain kopurua	Kanpaina amaieran inskribatutako azalera (Ha)
2000/2001	271	6.848	32.009
2001/2002	271	6.848	32.009
2002/2003	272	7.463	32.009
2003/2004	271	6.960	32.017
2004/2005	268	6.867	32.000
2005/2006	270	7.403	32.382
2006/2007	275	7.407	32.315
2007/2008	272	7.547	33.706

Iturria: Cava Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea

1975-2008 epean merkaturatutako Cavaren analisiari dagokionez, produktu honen barne eta kanpo komertzioak izan duten eboluzio ezberdina bereizi beharra dago. Lehenengo kasuan, garapen gorabeheratsua izan da, batez ere 1990. urtetik aurrera. Atzerrira egindako esportazioen bilakaerarekin ez da gauza bera gertatzen, azken 15 urteetan nabarmen gora egin baitu, 228 milioi botila saltzea lortu arte.




Merkaturatutako Cavaren ekoizpenaren bilakaera 1975-2008 epean (Milaka botila)



Iturria: Cava Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea

Komertzializazioaren bilakaera

Cavaren merkatuaren tipologiaren arabera egungo banaketak Brut motaren (%48) salmenten nagusitasuna erakusten du, eta bere atzetik ondokoak daude: Erdi-lehorra (%29), Extra-Brut (%13) eta Lehorra (%10). Moten arabera eboluzioak Erdi-lehorraren salmenten garrantziaren galera azaltzen du. Aldi berean, Brut motaren merkaturatzeak hazkunde portzentuala izan du, eta gainerako Cava motak mantendu dira.

**2007-2008 kanpainan, Cavaren osoko komertzializazioaren banaketa mota ezberdinen arabera (%)**


Iturria: Cava Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea

Kanpoan merkaturatutako Cavaren banaketari dagokionez, nabarmendu behar da dago Europako Batasuneko salmenten nagusitasuna, 2007-2008 kanpainan esportazio guztien %77 lortzen baitzuen. Horietakoen artean, azpimagarriak dira Alemania eta Erresuma Batura egiten den salmenten bolumena.

Bigarren lerro batean daude amerikar kontinentera egiten diren salmentak, esportazio guztien %13,8 direnak. Gainerako kontinenteetara dagoen kanpo merkataritza hondarreko kokapenean dago, Japoniara (Asia) fakturatutako salmentak salbu.



2007-2008 kanpainan, Cavako esportazioen banaketa kontinenteen arabera (75 cl-ko botilen %)



Iturria: Cava Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea

Azken urteetan Cavaren esportazioen banaketak gorako bilakaera izan du kontinente gehienetan, Europako Batasunean azken kanpainetan nolabaiteko atzerapena izan arren.

2000-2007 epean, Cavako kanpo merkataritzaren bilakaera kontinenteen arabera (HI)

	UE	EB-tik kanpoko Europa	Amerika	Asia	Besterik	Guztira
2000/2001	554.452	27.977	86.443	20.456	38.312	727.640
2001/2002	630.219	26.675	84.602	17.162	20.213	778.871
2002/2003	669.984	27.843	101.549	14.436	22.530	836.342
2003/2004	704.950	28.385	111.402	21.117	24.384	890.238
2004/2005	759.138	40.783	117.664	31.226	4.870	953.681
2005/2006	741.531	36.145	134.189	34.026	5.675	951.566
2006/2007	712.085	41.818	149.146	38.883	5.466	947.398

Iturria: Cava Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea